



Jon Alonso, Iruñean, 'Hiri hondakin solidoak' liburua aurkeztu zuen egunean. :: TXALAPARTA

«Nire belaunaldiko zer euskaldunek sinesten ditu bertsiio ofizialak?»

Jon Alonso Idazlea

:: FELIX IBARGUTXI

Jon Alonso Fourcade (Iruña, 1958) narrazioa eta saiakera landu dituen idazlea da. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ari da lanean, itzultzaile. Orain 'Hiri hondakin solidoak' nobela beltza plazaratu du. Protagonista nagusia Enekoitz Ramirez 'Lanbas' da, ETAn ibilitakoa, artelaren lapurretan ere jardundakoa, eta azken urteotan sasi-detektibe dabilen gizona. 'Lanbas'-en bigarren istorioa da, 2012ko 'Zintzoen saldoan' haren ostean datorkiguna.

– **Liburua aurkeztu zenuen egunean hau esan zenuen: «Euskarazko sortzaileak euskal gizarteko azkeneko pariak dira».**

– Ez dut nik bakarrik esaten. Gero eta horrelako mezu gehiago iristen dira sormen mundutik, entzun nahi duenarentzat; esaterako, bada idazle bat, joan diren lau edo bost urteetan, urtean bizpahiru aldiz, publikoki galdetzen duena ea euskal kulturari sinesten dugun; gure kantari ezagunenetako batek esan omen du, erretreta hartzeko bezperan, emaztearen soldatari esker irau duela bizirik... Dena den, ez da gure kontua bakarrik, mendebaldeko gizarte honetan orokorturiko eskema bat baizik: botere kultural zentral batek bultzatzen duen sortzaileen star-system moduko bat gurtu eta sakralizatu egiten da, eta hortik kanpo geratzen den guztia mespretxatu egiten da, biziki mespretxatu ere, txarra baita. Euskal kultura txiki eta ahulean eskema hori birsortzen da, gehien oniritzia-

rekin; eta gutako batzuk, konforme ez egon arren, jokoan sartzen gara, askotan gure izatea bera erreibindikatu beharrak hartaratuak. Aski patetikoa da. Eskatu bezala, pixka bat komentatzen dizut, serio hartuz gero gaiak luzerako emango luke.

– **Hau ere adierazia duzu: araua eta gramatika bukatzen diren puntuan hasten da testu baten literaturtasuna. Ikonoklasta samarra ageri zara liburu honetan, erdarakaden beldurrik gabe.**

– Esaldi hori, literaturtasunarena, ez da nirea, Sarrionandiarena baizik. Ez dakit hitzez hitzekoa den, baina. Nik errepikatu-moldatu egin dut, ulertzen dudan neurrian neure egiten dudalako. Jartzen duzun adibidea dela-eta, esan behar dizut ez nagoela bereizik harro esaldi horrengatik, baina ziur naiz Gasteizko, Iruñeko eta Bilboko euskaldun aktibo askok, eta are Donostiako zenbaitek ere, alegia, euskaraz, posible den heinean, bizi direnek, beren burua islatuta ikusiko dutela esaldian. Euskara aberatsago eta bere buruaren jabeago baten beharra eta aukera hor daude beti, baina ez da komeni ahaztea zer garen, 'periferikotzat' jotzen diren beste hainbat sortzailearen ekarpena ahaztea komeni ez den bezala. Sarrik 'Morroak...' hartan Antton Lukuren 'Boitoletan' hartzen du azken honen adi-

bidez, eta badira beste batzuk ere, noski.

– **Istorio honek eskatzen zuen hizkera 'zikinago' bat, ezta? Euskal Herritik kanpo garatzen baita nagusiki, eta gainera tarteka giro lumpen samarrean.**

– Bai edo... Euskal Herritik kanpoko euskaraz kontatzen ahal den kontentzioa geureganatu dugu, gutxienez. Duela ez hainbeste egiteko zegoen hain argi.

– **Nolako da fisikoki zure protagonista, Lanbas? Liburuan ez baituzu haren deskripziorik egiten.**

– Hurrengo liburuan egin beharko dut, ezta? Daukan adina atera daiteke, urte pare bat gorabehera. Adin horretako gizon arrunta da, bakoitzak irudika dezala nahi duen moduan.

– **Lanbasek detektibe-lana egiten du, baina ez du esaten detektibe denik. Ogi-bide horretaz zalantzak balitu bezala. Halako batean, Charok galdetzen dio:**

«Zertan aritzen zara?» Eta hark: «Autonomoa naiz».

– Ez du esaten detektibe denik ez delako detektibe. Badaezpadako bat da, delitutik oso urruti ez dabilena, berriz kalkoa erabiliz, 'iturgintza' lan txikiak egiten dituen morroi bat. Ez da batere berria, nobela beltzean uste duguna baino ohikoagoak dira protagonista delitugileak. Gogoan hartu denboran eta espazioan aski urruti

dauden Jim Thompsonen, Patrick Manchetteren edo Massimo Carlotoren nobelak, besteak beste.

– **Behin baino gehigotan agertzen dira bertsiio ofizialaren kontrako mesfidantzak, argudioak.**

– Nire belaunaldiko zer euskaldunek sinesten ditu bertsiio ofizialak? Bakar batek ere ez. Ezta publikoki defenditu behar dituztenek ere, beharbada haiek gutxien, datu eta informazio gehiago eduki ohi dituzte-eta.

– **Detektibe eta polizia gauza kontrajarriak dira, antagonikoak.**

– Antagonismo hori nobela beltzaren jatorrian dago. Spade, Marlowe, Archer... horiek denek, zenbat moko-kaldi ez ote zituzten izan poliziek, informazioa ezkatzen zietelako bezeroaren interesak defenditzeko? 1929ko Hammeten 'Uzta Gorria' nobela, detektibearen jarduna guztiz justifikatuta dago, segurtasun-zaindari publikoen ustelkeria zalantzarik

«Detektibearen eta poliziaren arteko antagonismoa nobela beltzaren jatorrian dago»

«Ez al da Euskaltzaindiaren eredu, aski dezimononikoa, aldatzen hasteko garaia?»

gabeak erabat logiko bihurtzen delako segurtasuna esku pribatuetan jartzea, hortik atera kontuak. Ordu-tik laurogeita piko urte pasatu dira, rolak aldatu egin dira, noski, ez dakit aldaketa noraino den benetakoa, baina.

– **Lanbas detektibe euskalduna da, bistan da: jan-edanak ugari, sexu gutxi.**

– Ez hain gutxi. Ez oso kontatu zale. – **Vazquez Montalbanen zale omen zara, eta liburuan egin diozu keinu batzuk: Bartzelonan garatzen da istorioa, putak Charo du izena, Lanbasek albondigak sepiarekin jaten ditu... Zer izan zen zuretzat Vazquez Montalbán?**

– Vazquez Montalbanek ez du prentsa onegia gure artean, eta alde batetik, harekin kritiko direnek ez dute horretarako arrazoi falta, segurutik. Nik ere konpartituko nituzke kritika batzuk. Baina, usu, kritikoez ahaztu egiten dituzte bere alderdi onak. Bat baino ez aipatzearen, nobela beltzaren ondare historikoaren gaineko gogoeta bat egin izana, nobela-eredu kritiko baina aldi berean entretenigarri bat sortzeko, aldeak alde, beste agertoki batzuetara eramateko modukoa, baldin eta gaur egun hori inori interesatzen bazaio.

– **Bukaeran, protagonistak Marshall Bermanen liburu bat hartzen du eta komuneran sartzen, irakurtzeko. Nolako da Lanbasen liburutegia?**

– Oraingoz Schütz, Txillardegia, Berman... horiek daudela dakigu. Nik ere ez dakit besterik. Aski irakurle konpultsiboa ematen du. Konpultsiboa da, apetatsua, nahasia, harroa, koleratua, prestakuntza gutxikoa... ez dakit ba, ezer onik espero daitekeen halako irakurle batengandik. Irakurle arriskutsua da.

– **Euskaltzaindiarekin badu lotura istorio honek. Kontu zahar batzuk ere tartekatuta dituzu, adibidez Resurreccion Maria Azkueren heriotza. Beraz, garaia iritsi da gure erakunde sakratu baten kontura barre pixka bat egiteko, ezta?**

– Barre egiteko, barre egiteko... nik ez nuke hainbeste esango. Baina bai gutxienez desakralizatze eta balantze moduko bat egiteko. Euskaltzaindia behar-beharrezkoa izan zen aldi historiko jakin batean, eta lan halaber historiko eta bikaina utzi zigun, euskara batua. Horretarako, bide zailean, aliantza ez oso naturalak eta aski behartuak garatu behar izan zituen. Hori guztia goratu eta eskertu beharra dago. Baina, kontuan hartuta Arantzazuko Bazarretik 47 urte pasatu direla, irudipena daukat hainbat gauza kuestionatzeko garaia dela: zergatik izan behar da erregearen mendekoa, 2015. urtean, ia denak antimonarkikoak bagara? Zergatik da hain opakoa bere funtzionamendua, denon artean ordaintzen badugu? Zerk justifikatzen du bere izatea bera? Ez al da eredu, aski dezimononikoa, aldatzen hasteko garaia? Erabakitze eskubideaz hainbeste hitz egiten den garai honetan, nori dagokio euskarari buruzko erabakiak hartzea? Ustezko jakintsu batzuek osaturiko sanedrin bati, edo euskara langai eta bizigai duen profesionalari eta herritarri? Niri galdera pila bat bururatzen zaizkit..